



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko martxoaren 21a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sozietateen gaineko Zerga alda dezan. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxeen arloko eskumenak eskura ditzan. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza inklusiboaren, 0-3 zikloa hezkuntza arlokoa izatearen eta “Hiritartasunerako hezkuntza” irakasgaia ematearen alde egin dezan. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (4. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, enplegu erregulazioko prozesuan enpresek alde aurretiko administrazio-baldintza eskatu behar izateaz onetsitako ebazpena betetzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (5. or.).
- Galdera, La Caixak Nafarroako Kutxa erosteko aukerari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (6. or.).
- Galdera, jakiteko zer jarduketa-ildo nagusi garatuko dituen Osasun Departamentuak ospitalez kanpoko laguntza –oinarrizko osasun laguntza, larrialdiak eta laguntza espezializatua– berrantolatzeari dagokionez, Marisa De Simón Caballero andreak egin (6. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sozietateen gaineko Zerga alda dezan.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sozietateen gaineko Zerga alda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Maiorga Ramírez Errok eta Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, zeina martxoaren 8ko Osoko Bilkuran eztabaidatutako jabelduratik heldu baita, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Parlamentuaren 2012ko martxoaren 8ko Osoko Bilkuran, gure taldeak erregistratutako jabeldura bat eztabaidatu zen, gai-zerrenda-

ko bosgarren puntuan. Jabeldura zerga politikaren eta ekonomiaren gaineko politika orokorrari buruzkoa zen, eta, zehazki, arlo horretan ezarriko diren neurriei buruzkoa.

Eztabaidan zehar, parlamentu-talde bakoitzak bere ikuspuntua azaldu zuen, zerga arloko politikaren eragin-eremuen errealitateari buruz. Halere, eledunak bat etorri ziren, beren mintzaldietan, enpresen etekinei dagokienez jarri beharreko ezarpenei buruz eta tamaina ezberdinetako enpresen tributazioan tasa errealean eta nominalen artean dauden disfuntzioei buruz.

Hortaz, egungo zerga-parametroak berrikusi beharra dagoenez eta konbentzitututa gaudenez funtsezkoa dela enplegua eta ongizatearen estatuen zutabeak babestea, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Sozietateen gaineko Zerga alda dezan, horren ondorenak optimizatzeko; izan ere, zerga tresna bat da gizarte-kohesioan aurrera egiteko eta ongizatearen estatua indartzeko, enpleguaren sorrera eta mantentzea sustatzeko, Nafarroako enpresa-sarearen lehiakortasuna sustatzeko eta, jakina, diru-bilketa arloko ahalmena hobetzeko eta zerga-iruzurraren aurkako neurriak areagotzeko.

Iruñean, 2012ko martxoaren 9an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxeen arloko eskumenak eskura ditzan.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da espetxeen arloko eskumenak eskura ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2012ko martxoaren 8ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Foruaren Hobekuntzaren arabera, Nafarroari dagozkio espetxe arloko zenbait eskumen –58-1-A artikulua–, zeinak ez baitira ez jaso, ez eskualdatu. Are gehiago: eskumen hori ez da sekula erreklamatu formalki. Urte askotan zehar, espetxe berria eraiki arte itxaron behar zelako aitzakia erabili zen, eskumen horren errebindikazioa atzeratzeko. Behin espetxea eraikita, arrazoi edo aitzakia hori desagertu egin da, eta, hortaz, bidezkoa da eskumen hori erreklamatu, negoziatu eta jaso-

tzea, bai autogobernua bai politika sozialak nahiz birgizarteratzeari buruzkoak bultzatzeko.

Gizarteari begira oso garrantzitsua izanen litzateke Nafarroako herritarrek Iruñean eraiki den espetxe berria ezagutu ahal izatea.

Behin-behinekoz, harik eta eskumena lortzen den arte, Nafarroan preso dauden pertsonentzako zerbitzuak eta laguntzak behar bezala gaurkotuta mantendu beharra dago.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, aurretiaz Eledunen Batzarrean izapidetu eta akordioa hartu ondoren, espetxe arloko eskumena eska eta jaso dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 58.1.A artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemnak egin ditzan Espetxe Politiketako Zuzendaritza Nagusian eta, kasua bada, Barne Ministerioan, ate irekiko jardunaldiak antola ditzan, behar bezala gidatuak eta kontrolatuak, herritar guztiek, nahi izanez gero, Soltxaten (Iruña) eraiki den espetxe berria barrutik bisitatu, ikusi eta ezagutu ahal izan dezaten, presoak bertara eraman aitzin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berritu eta gaurkotu dezan, behin-behinekoz eta Foruaren Hobekuntzako 58.1.a artikuluan ezarritako eskumenak jaso eta eskualdatu arte, Nafarroan preso daudenei laguntzeko eta haienezko zenbait prestazio eta zerbitzu –kultura, prestakuntza, osasun nahiz gizarte arlokoak– diruz laguntzeko hitzarmena.

Iruñean, 2012ko martxoaren 12an

Foru Parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza inklusiboaren, 0-3 zikloa hezkuntza arlokoa izatearen eta “Hiritartasunerako hezkuntza” irakasgaia ematearen alde egin dezan.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza inklusiboaren, 0-3 zikloa hezkuntza arlokoa izatearen eta “Hiritartasunerako hezkuntza” irakasgaia ematearen alde egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2012ko martxoaren 8ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Wert ministroak egindako erreforma-proposamenei eta erreforma horiek Nafarroako hezkuntza-sisteman izan ditzaketan ondorioei buruz azken osoko bilkuran jorratutako jabelduran argi gelditu zen une honetan ezjakintasuna dela nagusi, horiek gauzatzeko moduari dagokionez. Dena den, iragarri zen saiatuko direla negoziazioaren bidez gauzaten erreforma, hezkuntzaren arloan hain beharrezkoa den adostasuna bilatuz, hain zuzen ere. Gure ustez, negoziatu ahal izateko eta adostasun batera heldu ahal izateko, beharrezkoa da egoera berriak ekar litzakeen alde onak eta txarrak ezagutzea. Aldaketak proposatu dira erantzun bat emateko Estatuko hezkuntza-adierazle txarrei

–eskola-porrot handia eta eskola-uzte goiztiarra eta emaitza akademikoak hobetzeko. Nafarroako hezkuntzaren egoera hobea da, parametro horiei dagokienez. Eztabaidan zehar kezka ugari agertu ziren parlamentu-taldeen jarrera finkatzean; mozio honen helburua ez da horiek guztiak aztertzea, baina bai garrantzi gehien duten horietakoren bat edo beste.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Haur Hezkuntzako Lehen Zikloaren –0 urtetik 3 urtera– hezkuntza-izaera, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du ikaskuntza horiek antolatzeke eta egituratzeko behar den legegintza-esparrua taxutu dezan, zikloaren hezkuntza-izaera eta izaera unibertsala bermatuz eta, horrenbestez, Nafarroako hezkuntza-sistema publikoan sartuz. Eta orobat ziurtatuz eta arautuz langileen –irakasleen nahiz gainerako profesionalen– finantzaketa eta egonkortasuna.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hezkuntza-sistemaren erreformari buruz egiten diren negoziazioetan, OCDEren orientabideei jarraikiz, defenda ditzan Haur Hezkuntzako 0tik 3 urtera bitarteko zikloaren hezkuntza-izaera, ikasleen banatze goiztiarrik eza eta hezkuntza inklusiboa.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du defenda dezan Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako curriculumetan sartzea “Hiritartasunerako hezkuntza” irakasgaia eta curriculum-arloa, gaur egun den moduan; alegia, curriculum-arlo gisa eta, horrenbestez, inolako doktrinamendurik gabe “Hiritartasunerako hezkuntza” irakasleek irakasteen aldetik.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan, Bigarren Hezkuntzan 3+3 egitura berria ezartzeak izanen litzakeen ondorioei buruz.

Iruñean, 2012ko martxoaren 12an

Foru Parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

F saila:
GALDERAK

Galdera, enplegu erregulazioko prozesuan enpresek alde zuzeneko administrazio-baldintza eskatu behar izateaz onetsitako ebazpena betetzeari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, enplegu erregulazioko prozesuan enpresek alde zuzeneko administrazio-baldintza eskatu behar izateaz onetsitako ebazpena betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, martxoaren 22ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicoechea andreak ahoz erantzun dezan:

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordeak Nafarroa Bairen mozio bat onetsi zuen martxoaren 13an, Gobernuak bi taldeen

aldeko botoarekin. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zen baldintza gisa ezar diezaien zailtasunak dituzten enpresei, baldin eta beren zirkulatzailerako finantza-babesa (finantzaketa edo/eta abalak) emateko edo beren finantza-pasibo berregituratzeko lerroak baliatu nahi badituzte, alde zuzeneko baimen administratiboari men egiten diotelako konpromiso fede-emailea hartuko dutela, erregulazio-prozesu bat abiaraziz gero –kontratuak etetea edo lanaldia murriztea–, hitzarmenetik beheragoko ordainsari-baldintzak aldatuz gero –ordainsarien arloan hitzarmenetik aldentzea– edo kontratuak amaiaraziz gero –iraizpen kolektiboa–. Konpromiso hori indarrean egonen da Nafarroako Gobernuak emandako laguntzak kitatu arte.

Nafarroa Bai uste dugu mozioak agindutakoa betetzea Nafarroako Gobernuaren eta ez beste inoren esku dagoela, eta, hortaz, aise bete daiteke mozioan agindutakoa. Halere, batzordean izandako eztabaidan zalantzaren bat sortu da mozioan agindutakoa betetzeari begira Nafarroako Gobernuak duen ahalmena dela eta.

Horra galdera:

Nafarroako Gobernuak noiz eta nola beteko du onetsitako mozioan agindutakoa?

Iruñean, 2012ko martxoaren 13an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, La Caixak Nafarroako Kutxa erosteko aukerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, La Caixak Nafarroako Kutxa erosteko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du La Caixak Nafarroako Kutxa erosteko aukerari buruz?

Iruñean, 2012ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko zer jarduketa-ildo nagusi garatuko dituen Osasun Departamentuak ospitalez kanpoko laguntza –oinarrizko osasun laguntza, larrialdiak eta laguntza espezializatua– berrantolatzeari dagokionez.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer jarduketa-ildo nagusi garatuko dituen Osasun Departamentuak ospitalez kanpoko laguntza –oinarrizko osasun laguntza, larrialdiak eta laguntza espezializatua– berrantolatzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ospitalez kanpoko laguntza-zerbitzuetako profesionalen artean dagoen ziurgabetasuna eta egoinezina ikusita, hauxe jakin nahi dut:

Osasun Departamentuak zer jarduketa-ildo nagusi garatuko ditu ospitalez kanpoko laguntza –oinarrizko osasun laguntza, larrialdiak eta laguntza espezializatua– berrantolatzeari dagokionez?

Iruñean, 2012ko martxoaren 16an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

